



Etxauriko Udalak Sarbileko proiektu energetikoari alegazioak aurkeztu dizkio

Proiektuaren parte-hartze komunitarioa ziurtatzea eta gizarte zein ingurumen inpaktua ahalik eta txikiena izateko neurriak bermatzea dira Udalak aurkeztu dituen alegazioen oinarriak.

Etxauriko Udalak, proiektuaren eduki publikoa aztertu ondoren eta apirilean hasitako deliberazio prozesuan jasotako eskaerak eta ardurak kontuan harturik, Sarbil Eguzki S.L enpresak Sarbil mendian eraiki nahi duen proiektu energetikoari 13 alegazio aurkezte erabaki du. "Enpresarekin adostu genituen baldintzak bere horretan betetzen eta bermatzen direla ziurtatu behar dugu, baita proiektuaren irakurketak sortu dizkigun eta herriko bizilagunek planteatu dizkiguten kezka argituko direla ere", adierazi du Idoia Aritzala Etxarren Etxauriko alkateak.

Parte-hartze komunitarioa

Udalak aurkeztu dituen alegazioetan, enpresari parte-hartze publiko komunitarioa gauzatzeko garatuko duen formularen inguruko zehaztasun handiagoa eskatzen zaio, bai eta parte-hartze hori ahalbidetuko duen planifikazioaren eta plataformaren aurrerapen bat ere. Beti ere, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legeak ezarritako jarraikiz. "Deliberazio prozesuan, proiektuaren partaidetza %100koa izateko aukera aurreikustea maiz plazaratu da eta, horregatik, enpresak aurkeztutako dokumentazioak aukera horren inguruko erreferentziaren bat izan beharko luke", azpimarratu du Etxauriko alkateak.

Horretaz gain, alegazioetan promotoreari proiektuaren bideragarritasun ekonomikoaren azterketa egiteko eskaera jasotzen da. Zehazki, sustatzaileak proiektuan parte hartzen duten tokiko erakunde, herritar eta gainerako eragileen bideragarritasun ekonomikoa aztertu eta ziurtatu beharko luke.

Ingurumenaren zaintza

Udalak enpresarekin adosturiko baldintzetan, proiektuaren ingurumen inpaktua neurtzeko neurriak ezartzeaz gain, biodibertsitatea hobetzeko proiektuak gauzatzeko aukera ere jaso zen. Hala ere, deliberazio prozesuan, kezka agertu da ebaluazio-azterketak 15 urte igaro ondoren bertan behera gera daitezkeelako. Hori dela eta, Udalaren alegazioetan beharrezkotzat jotzen da ebaluazio horiek instalazio energetikoaren bizitza baliagarria amaitu arte luzatzea. Ez hori bakarrik, Etxauriko alkateak jakitera eman duenez, "ingurumen inpaktuaren azterketez gain, alegazioetan ere suteei aurre egiteko neurriak, ebakuazio-lerroen aldaketa, akuifero eta faunaren zaintzarako bermeak, paisaiaren babesa edo CO2 isurien balantzea txertatzeko eskatu diogu enpresari".

Gainera, eta proiektuaren ustezko izaera agrobolitaikoaren harira, alegazioek argi jasotzen dute sustatzaileak ezin duela bere proiektua bere horretan definitu asmo-deklarazio soil batekin, ez bada ekoizpen energetikoaren eta nekazaritza-jardueraren arteko bateragarritasuna erreal eta eraginkorra dela zorrotz egiaztatuz. Azkenik, Sarbil mendiaren eremuan beste proiekturik ez garatzeko konpromisoa hartu zuen sustatzaileak Udalarekin baina, Idoia Aritzala Etxarren alkateak plazaratu duenez, "enpresak aztertutako dokumentazioan ez dago konpromiso horri buruzko aipamenik, beraz, sartu egin beharko luke".

Etxaurin, 2026eko maiatzaren 13an

Idoia Aritzala Etxarren
Etxauriko Alkatea – Alcaldesa de Etxauri